

Erromeria giroan agur ikasturteari

Sasoeta-Zumaburun jai-giroa izan zen nagusi joan den larunbatean. Udako erromeria antolatu zuten.

Eguraldiak lagundu zuen, eta jendea animatu zen Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso, ikasle eta irakasleek antolatu-tako Ikasturte amaierako ekitaldian parte hartzera.

Goizean-goiz hasi ziren ekintzak. Goizeko 9etan krosa izan zen, eta, ondoren, jokoak. Txikiak auki-jokoa jolasten ibili ziren, nagusiagoak, berriz, sorpresaz betetako poltsak puskatzen. Hainbeste ekintzaren ostean indarrak berreskuratu beharra zegoela eta, hamaiketako eman zieten ikasleei. Jai giroak jarraitu zuen, baina erromeria gertu zegoen, eta talogileak lanean hasi ziren. Herriko talogile esperientzia-dunak Sasoetara joan ziren bertako ikasleei taloak egiten erakustera. Aizpea, Aitziber, Adriana, Alazne eta Ainhoa burubelarri ari ziren taloak egiten. "Ez da zaila, baina batzuetan taloa pegatuta geratzen da ohelean, eta gero zaila da askatzea". Taloak

egin, eta ondoren, 2 euroren truke salgai jarri zituzten, txistorra ederrarekin lagunduta. Bitartean, beste ikasle batzuk liburu eta diskoak saltzen ari ziren. Eta, hamabietan, erromeria. Kultura desberdinei toki egin nahi zieten erromerian. Horregatik hainbat kantu ikasi zituzten, batzuk Euskal Herrikoak, beste batzuk kanpokoak. Baina guztiak euskaraz. Horiek dantzatu eta abestu zituzten erromerian, ikasle, irakasle eta gurasoek.

Ikasturteari amaiera ofiziala eman diote, baina asteen izango dira ekintza gehiago. Gaur, esaterako, irteerak dituzte 6., 5. eta 4. mailan diharduten ikasleek. Txikiago-entzat, berriz, herri kirolak eta jolasak antolatu dituzte. Asteartean, berriz, Hipo eta Tomax pailazoan ikuskizuna izango da Sasoetako patioan, eta San Joan sua ere piztuko dute. Eta hortik aurrera jai. Oporraldia hasteko desiatzen izango dira guztiak ere.



Egun guztian ekintzak izan ziren. Joko ugari goiz guztian, eta indarrak berreskuratzeko talo goxoak.

Ostiraleko zenbakia berezia izango da eta aurtengo San Pedro Jaietako egitarauak bildu ditugu bertan



Herriko hiru boluntario El Rocio-ko erromerian izan dira /4



San Joan jaietako ekintzak egingo dira bihar, asteartea /6



ESKAINZA AKADEMIKOA
34 urte pertsonak hezitzen



IEFPS USURBIL GLHBI



**MATRIKULA:
EKAINAREN 29TIK UZTAILAREN 3RA**

Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea




Administrazioa



Mantenimientua

Energia eta ura

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com



Estilo guztietako igerilarietako probak izan ziren. Harmailak jendez lepo izan ziren.

Buruntzaldeko igerilarien erakustaldia

Igerilari ugari elkartu ziren joan den larunbatean Lasarte-ko igerilekuan. Buruntzaldeko trofeoa izan zen jokoan, 20garrena alegia. Harmailak jendez lepo izan ziren.

Andoain eta Lasarteko igerilariak ez ezik, Hernani eta Barañaindik etorritakoak ere aritu ziren igerian. Nafarroatik, bi autobus etorri ziren. Buruntzaldeko 60 igerilari lehian, Hernani eta Barañaingoekin. Adin eta estilo guztietako igerilarietako probak izan ziren. Proba guztiak

bukatutakoan, 250 lagun Agiñako sagardotegi batera joan ziren bazkaltzera. Hain zuen, giro horretan banatu zituzten trofeoak eta dominak. Oso ondo pasatu omen zuten guztiek ere.

Urtero egiten da Buruntzaldeko trofeoa. Nolabait esateko, gaztetxoek ikasturteari amaiera emateko modu bat izaten da. Hala ere, uztailen ere entrenamenduak izango dituzte gaztetxoek. Eta helduagoek, berriz, proba garrantzitsuak. Gipuz-

koako txapelketa izango dute jokoan datorren astebukarran, Bergaran. Larunbatean eta igandean izango dira probak. Uztailaren 4an eta 5ean, berriz, Euskadiko txapelketa izango da jokoan Ordizian. Euskadiko txapelketan sailkatzen direnak izango dute Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera. Andoaingo Mikel Esnalek aukera handiak ditu uztailen jokatu den Espainiako txapelketan izateko. 50 metro librean aritzen da igerilari andoaindarra.

Quebrantahuesos-en izan diren lasarteoriatarren sailkapena

Aurten, herriko 25 zikloturistek eman dute izena Quebrantahuesos proba ezagunean parte hartzeko. Larunbatean korritu zen zikloturisten lasterketa ezaguna. 205 kilometro guztira eta lau mendate tartean.

Guztira 7.422 partaide izan ziren lasterketan. Izena gehiagok eman bazuten ere, batzuk atzera egin zuten azken momentuan.

Lasarte-Oriako txirrindulariei dagokien, horrela gelditu da aurtengo sailkapena. Esan, bi edo hiru txirrindularien denborarik ez dugula aurkitu.

- Armando Delgado Arenales. 6:14:08. 118garren postua.

- Igor Lopez Isasi. 6:27:27. 141garrena.

- Urko Madina Gonzalez. 6:31:23. 179garrena.

- Jesus Alfonso Landeta. 9:50:00. 419garrena.

- Aitor Urruzola Zubiria. 6:31:33. 440garrena.

- Jon Lasarte Kortajarena. 7:01:53. 631garrena.

- Antonio Mazo Alvarez. 6:42:34. 725garrena.

- Miguel Angel Martin Martin. 7:11:31. 762garrena.

- Mikel Calvo Yarza. 6:50:06. 1013garrena.

- Abel Herrero Luque. 6:58:44. 1.319garrena.

- Mikel Rey. 7:06:48. 1.648garrena.

- Unai Lizaso Huegun. 7:10:32. 1808garrena.

- Ricardo Fernandez Caballero. 7:11:53. 1877garrena.

- Antonio Montoya. 7:27:21. 2.539garrena.

- Asier Agirre Arteta. 7:43:42. 3.196garrena.

- Aurelio Fernandez Palomo. 8:05:18. 4.076garrena.

- Felix Gartzandia Insausti. 8:09:17. 4219garrena.

- Jaime Eleno Agustin. 8:18:31. 4.569garrena.

- Juan Ignacio Rivero Perez. 8:20:09. 4.613garrena.

- Ramon Garmendia Arteaga. 8:37:48. 5.128garrena.

- Alex Estevez Plaza. 10:37:45. 7.050garrena.

- Jose Cruz Sorozabal Portu. 9:08:09. 5.920garrena.

Aipagarria Armando Delgado Arenales lasarteoriatarrrak egindako denbora, 118. garren postuan sailkatu baita.

Gainontzean, aurtengo Quebrantahuesos lasterketa txirrindulari gipuzkoar batek irabazi du, Angel Vazquez lazkaotarrak.



Landaberriko ikasleek euskara eta jolasa uztartu dituzte ikasturtean

Landaberri ikastolako 537 gazte elkartu ziren joan den ostiralean Michelinekin. Jokoa eta euskara sustatzeko hainbat ekintza egin dituzte ikasturtean zehar, eta ostiralekoa amaiera-ekitaldia izan zen.

Bost urtetik hamabi urtera arteko gazteek hainbat jolasetan parte hartzeko aukera izan zuten: armiarma jolasean, txapel jaurtikea, sokatira eta sokasaltoan ibili ziren. Irakasleek esan bezala, jolas-orduetan sarritan jotzen dute ikasleek

gaztekerara, eta euskaraz ere jolas daitekeela erakustea izan da helburua. Esate baterako, sokasaltoan aritzeko abestiarri erakutsi dizkiete ikasleei.

Neska zein mutilak gurtura ibili ziren jolasean. Korrikaldi luzeren bat egitea ere tokatu zitzaizen, eta hurrengo jokoarekin hasi aurretik, deskantsatzeko aukera izan zuten. Eta musika doinuak ere entzun ziren; trikiti doinuak batetik, eta, bestetik, gaztetxoek gustuko musika-taldeak. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

J. M. Mongeren ikasleen erakusketa koloretsu eta alaia

TXINTXARRI

Jose Manuel Mongeren 4 eta 18 urte arteko ikasleen lanak ikusi ahal izan ziren lehengo astean, Manuel Lekuona kultur etxean.

43 ikaslek ikasturtean zehar landu dituzten teknika ezberdinak, errotuladoreak, arte digitala edo margoetako teknika erabilienak, akrilikoa eta olio margoak, ikusi ahal izan ziren erakusketan.

"Ikasturte hasieran hilabete batzuk arkatzarekin marrazten egoten dira. Gero errotuladoreen txanda da eta, olio margo edo akrilikoekin hasi aurretik, pintzela hartzeko akuarelarekin egiten dute lan," azaldu digu J. M. Monge irakasleak.

Teknikak eta estiloak

Erabilitako tekniken azalpena ere eman zigun, "teknika digitaletan Andy Warholen Marilyn antzerako koadroak egiten erakutsi diet Photoshop programa erabiliaz."

Bestalde, "akrilikoa eta olio margoekin koloreak nahasten erakusten dizkiet, oinarriko hiru koloreetatik abiatuta. Gero, txuria argitzeko eta beltza pixka bat iluntzeko erabiltzen ditugu."

Estiloei dagokienez, "lau edo bost koadro abstraktu daude erakusketan, beste guztiak figuratiboak dira. Abstraktuen kasuan, nik jarraibideak



Estilo eta teknika ezberdinez eginiko lanak ikusi daitezke erakusketan.

ematen dizkiet, etorkizunean euren kabuz egiteko," aipatu zigun irakasleak. Eta zera atxiki zuen, "txikiak irudimena gehiago lantzen dute. Gaztetoak direnean errealitateko gauzak margotzen hasten dira eta garai hori bukatzean, berriro ere, abstrakzioa edo ikerketara egiten dute salto."

Ikasturtean zehar ikasleen-gan bilakaera handia dagoela adierazi digu. Are gehiago, "hau gure laugarren erakusketa

da eta haur eta gazte gehienek lau urte hauetan lanak erakutsi dituzte. Urte batetik besterako garapen handia ikusten da koadroetan eta gazteen trebezia ere handiagoa da. Gainera, haiek ere bere buruarekin zorrotzagoak dira," aipatu digu.

Lehiaketak eta txangoak

Ikasturtean zehar hainbat lehiaketetan parte hartzen dute eta horren adibide erakusketan ikusgai zeuden hiru koadro

ziren, Udaberriko 8. Margo lehiaketan lehenengo eta hiru-garren sariak eta Zipistin lehiaketako finalista.

Baina margotzeaz gain, margolari ospetsuak eta haiek erabiltzen zituzten teknikak eta estiloak ere ezagutzen dituzte J. M. Mongeren ikasleek eta, urtean behin, Guggenheim eta Arte Ederretako Museoetara txangoa egiten dute gaur egungo margolarien lanak ezagutzeko. •

SALAKETA

EAJren salaketa ezkontza zibilak direla eta

Lasarte-Oriako EAJk salatu duenez, ezkontza zibilak egiteko debekua ezarri die herriko alkateak oposizioako alderdiko zinegotziei. Jeltza-leek "gogor" kritikatu dute Ana Urchueguiaren jarrera.

Jeltzaileen arabera, aurreko egun batean ezkontza zibil bat egiteko eskaera aurkeztu zuen Estitxu Alkortak, EAJko bozeramaileak. Urrian familiarteko bat ezkontza behar zuela eta, udaletxeko biltzar aretoa erabiltzeko eskaera egin zuen. Alkateak, baina, jakinarazi zion, agintaldi honetan oposizioako zinegotziek ezin izango dutela ezkontza zibilak egin. Jeltzaileek salatu dutenez, "alkateak hala erabaki, eta itxura denez gobernu taldeko zinegotziek soilik izango dute eskubide hori. Jarrera horrek ez du oinarririk, jokabide tamalgarrria da. Batetik, alkatea bere karguaz baliatzen ari da horrelako erabakiak hartzeko. Bestetik, herritarrei eskubide bat kentzen ari da, nahi duten zinegotziak ezkontzeko aukerarik ez baitute izango, eta, bukatzeko, herriko ondasunak alderdikariz erabiltzen ditu, Udaletxea eta biltzar aretoa guztiona baita, ez unean uneko alkatearena". Jeltzaileen arabera, era horretako ezkontzak bakean ospatzeko oztupoak jartzen ari da Ana Urchueguia, eta gainera, jendearen gogoia zapuzten. •

Gitarra doinuak eta poemak

Ordutegia ez zen oso erakargarria. Goizeko 11ak. Agian horregatik, ez zen jende asko hurbildu herenegun Kultur Etxean egin zen emanaldia. Lasarte-Oriako Musika Eskolako, eta Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioko

ikasleek gitarra emanaldia eskaini zuten. Iban Moreno lasarteoriarrak, berriaz, garai bateko musika-tresnak erakutsi zituen, guztiak gitarrarekin lotutakoak. Gitarra doinuak entzun ziren, eta poemak ere irakurri zituzten.



Larunbat goizean bilkura isila egin zen Udaletxe aurrean, ETAk joan den ostiralean polizia nazional bat hil izana salatzeko. Eduardo Antonio Puelles Garcia, Espainiako Poliziaren Bizkaiko informazio zerbitzuetaiko inspektore burua zen, eta ETAk hil zuen auto azpian jarritako bonba-lapa batekin. Herriko zinegotzi eta herritarrek elkartu ziren heriotza hori salatzeko. "ETA ez" zioen pankarta jarrita zegoen Udaletxean.

Lasarte-Oriako hiru boluntario El Rocio-ko festan izan dira

■ DYA taldeko 18 lagun joan dira boluntario gisa Huelvako El Rocio-ko festan laguntzera. Horiétako hiru Lasarte-Oriakoak dira: Arantza Artola, Koro Larrañaga eta Iñaki Vicente, *Txente*.

Sorospen lanak egitera joan dira, baina zoragarri pasa dute. Esperimentzia bikaina izan omen da. Huelvan ospatzen den El Rocio erromeria asko gustatu zaie, eta andaluziarrek jatorrak eta umoretsuak direla kontatu digute. Hori bai, erromerirako joandakoak asko harritzen ziren DYA-ko lagunak ezer kobratu gabe lanean ari zirela jakindakoan. Baina hala izan da. Berezik, asistentziazko laguntza behar zuen jendea ibilgailuetan eramaten ibili dira DYAko 18 lagunak.

Maria Agirre
ibilgailuak dituztelako. Andaluziako jantziak urtero ateratzen zuten lehiaketara aurkeztu zen DYA, eta beste behin ere aurreratu egin zituzten sorospen lanak egiteko. Batez ere, asistentziazko laguntza behar zuen jendea ibilgailuetan eramaten ibili dira DYAko 18 lagunak.

Erromeria zoragarria
Arantza, Koro eta Txente-k El Rocio-ko joateko aukera izan dute. Koro hirugarren urtez, Txente bigarrenez, eta Arantza lehenengo aldiz. Hiru lagunak bat datoz eskulako esperimentzia izan dela esaterakoan. "Erromeria oso polita da, eta ikusten dugu jendea ibilgailuetan eramaten ditzute, jantziak kanpotik aldatu zituzten, Andaluziako jantziak bailiran utziz. 4x4

El Rocio-ko erromeria Huelvan egiten da. Doñanako parkean. Urtean zehar ezin da parkeara sartu, baina erromeria egiten denean, erromesek bertatik igarotzeko aukera izaten dute. Erromesek kilometroak egiten dituzte zailtzat, onreiz, erromeritza jantziak, gaitera, erromeritza jantziak, Sevilla edo Cadiztik. Eta lur-eremu zaila da. Area batzuetan, eta hauts ugari bide gutxi. Horregatik joan dira DYAko 18 lagun sorospen lanak egitera, lur-eremu zailetan ibiltzeko 4x4

“Erromeria oso polita da, eta ikusten dugu jendea ibilgailuetan eramaten ditzute, jantziak kanpotik aldatu zituzten, Andaluziako jantziak bailiran utziz. 4x4



Eskerrak hasia, El Rocio-ko jantziak hiru boluntarioak: Arantza Artola, Koro Larrañaga eta Iñaki Vicente, Txente.



El Rocio-ko erromerian erromes ugariak parte hartzen dute. Mili bat lagun baino gehiago elkarrekin dira.

ari harritzen ziren boluntario lanetan ari gindela eta ez ez gindela ezer kobratuko jakitekoan. Horietan beste mentalitate bat dute. Ez dute uleten nola pertsona bat laneko jantziak hartu, eta ehundaka kilometroa dagoen erromerian batera joan den misturak badira. Arantza. "Ossun

are eta gehiago harritzen ziren, Hala ere, krisia sumatu omen da, eta aurreko mediku guxiago kontatatu dituzte. Ondorioz, boluntarioek lan gehiago izan dute. Andaluziarren inguruan, bestealde, beste paxkaldak bat dute. Arantza. "Ossun

kin hasi ginen, gauzak seguitan egin nahiean, baina ikusten dugu han beste an-erimto bat dutela eta horretarako moldatu behar zela".

Era guztiko arazoak


Bereziki 4x4ko ibilgailuetan jendea batetik bestera eramaten ibili dira. "Parkea handia da, eta kilometro horietan gutxienez laguntza behar izaten zuten jendeak. Mili bat lagun baino gehiago elkarrekin dira. Gainera, orotz kilometro asko egiten dira, eta oinetan arazoak izaten dituzte. Zalditxak ere erosten dira batzuk, eta hezurren bat edo beste puskatu.

Aurreko alergiak kontatuak asko izan dira, hauts asko hartzen baita bidean. Eta inisuetan ziztadak ere asko izan dira. Horietaz gain, ohiko arazoak, gutxi batzuk alkoholarekin edo kontuan izan behar da bestalde, bero izugarria egiten duela, eta horrek ere osasun-arazoak eragiten ditu. Baina gure zereginak zehazki ibilgailuetan eramatea izan da. Parkean zehar badira behin behinero jarri-tako ospitaleak, eta guk jendea horietara eramaten genuen. Egocera korpiluzten Sevillako bertik, Huelvako edo Sevillako

erromeria bamu-barutik ezagutzen auzkera izan duela, eta, bestetik, toki zozgarriak ikusi dituztelako. "Doñanako parkea zoragarria da. Ederra, Animalia pila bat ikusleko aukera duzu. Horetaz gain, gurtia da jendearen atropak, gurtia da polia" esan digu Txentek. Arantzak, bertik, gogoa du hondartzak batean ibilgailuz egin zituzten kilometroak. "Sentisazio ederra izan zen, hemen ezin baitzara ibilgailuz arcan ibili".

Erroptatzeko asmoz

Batek daki hurrengo urtean zer izango den, baina, Arantzak esperientzia errepikatzea. Txentek, bertik, zailago izango du, aurreko aldia izango baita eta umea zaintzen nahikoa izango duela ueste du. "Jendeak asko eskertzen du egindako lana, eta horrek poz handia ematen duzu. Gainera, ondo pasatzen duzu" diosku Arantzak. Kororen uestez, bertik, erromeria bizi behar da, zer den jakiteko. "Eta behin, Rocio-ko amabirjinaren helaraz jendea negarrez, erabat hunkituta. Ikusi egin behar da nola bizi duten. Norbera ere hunkitzen da horrelakotan".



Mila esker 25 urte hauetan gurekin izan zareten guztioi!
Ostirala 26an 19:30etik aurrera
Ospatu gurekin urteurreneko jaiak!
Kale Nagusia 67 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372760

EUSKARA

AEK-k ikastaro sorta antolatu du

Garena ikasteko biderik laburrena leloarekin, hainbat ikastaro antolatu ditu AEK-k. Euskaltegietan ez ezik, barne-tegietan euskara ikasteko aukera dago. Adibidez, Lasarte-Oriako hiru lagunek barne-tegietara joateko izena eman dute. Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian antolatu dituzte barne-tegiak. Horretaz gain, familientzako barne-tegiak ere badira aukeran, gurasoak eskolan dauden bitartean, begiraleek seme-alabak zaindu ditzaten. Azpimarratzeko, bestalde, xiberera ikastaroa, eta bizikletaz egingo den barne-tegi ibiltaria. Ikastaroren batean parte hartu nahi duenak AEK-ra jo behar du, Muntteri euskaltegira.

LANA

Ingemar enpresako langileen bilkura

Joan den larunbatean bilkura egin zuten Ingemar S.A. enpresako langileek Usurbilen. Enpresako akziodunen batzarra zegoela eta, Ingemar enpresak bizi duen egoera salatu nahi izan zuten langileek. Komiteak jakinarazi duenez, 2009rako aurreikusitako iguera zor die langileei enpresak.

Komiteak salatu duenez, gainera, enpresako zuzendaritzaren jarrera "guztiz salagarria" da, komiteak arazoari irtenbidea bilatzeko ahalegiak egin arren, zuzendaritzak ez baitie inolako kasurik egin.

Bihar, San Joanetako ekintzak

■ Datozen egunetan jai giroa sumatuko da herrian ■ Bihar, asteartea, San Joanetako ekintzak egingo dira.

TXINTXARRI

Bihar arratsaldean, mahai joko tradizionalak izango dira jubilatuen elkarteetan, eta iluntzeko 19:00etan, jubilatuen koruaren kontzertua Ama Brigitarren komentuan.

Ekitaldi nagusia, 21:30ean hasiko da. Erketz Euskal Dantza Eskolako kideek San Juan zortzikoa dantzatzuko dute udaletxe parean.

Ondoren, Udalbatzarekin batera, Andatza plazara abiatuko dira herriko dantzariak. Soka-dantza dantzatzuko eta 22:00ak aldera sua piztuko dute.

San Joanak mundu guztian ospatzen dira, eta udaren hasieran kokatzen gaituzte. Sua piztuz, zaharkitua dagoe-na erre nahi izaten da.

San Pedroen atarikoak

San Pedroak ate-joka ditugula eta, ekainaren 25 eta 26rako ekintza sorta antolatu da.

Ostegun goizean, 10:00etatik aurrera, uretako festa egingo da Kiroldegiko igerilekuan. Bost urtetik 12 urtera arteko haurrentzat antolatutako festak goiz osoa iraungo du eta jolasez, zein puzgarriez gozatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek.

Txikiek ez ezik, helduek ere izango dute ondo pasatze-



Bihar, gaueko 22:00etan, soka-dantza egin, eta San Joan sua piztuko dute Andatza plazan.

ko eta sasoian daudela erakusteko aukera.

Goizeko 10:00etan aerobik-eko erakusketa egingo dute jubilatuen elkarteek, eta ordu bat beranduago gimnasia erakustaldia. 12:00etan, berriz, batuka erakustaldia izango da Zentro Zibikoko emakumeen eskutik.

Ekitaldi horiek guztiak Kiroldegian egingo dira.

Arratsaldeko 16:00etan, berriz ere jubilatuentzako

ekintzak. Garai bateko jolasak Isla Plazan: toka, igela eta potoa.

Eta indarrak berreskuratzeko, arratsaldeko 18:00etan, luncha eskainiko zaie ekin-tzetan parte hartu duten jubilatuei.

Ekainaren 26an, berriz, lagunarteko futbol txapelketaren finalak jokatuko dira kiroldegian goizez.

Bestalde, hamar urtetik 18 urtera arteko gazteentzat,

jolasak eta tailerrak antolatu-ko dira Isla Plazan 14:00ak arte.

Jubilatuen elkarteetan ere iizango da ekintzarik arratsaldeko 17:00etatik aurrera: kanta, poema eta txiste lehia-keta alegia.

Bukatzeke, iluntzeko 20:00etan, Alboka, Alboka txiki eta Txepetxa abesbatzek ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute Brigitarren komentuan. •

Kontzertu paregabea Goiargi abesbatzak eskainitakoa

Larunbata iluntzean, Brigitarren komentura hurbildu ziren herritarrek Goiargi Abesbatza-aren emanaldiaz gozatu ahal izan zuten.

Kontzertua Alboka Abesbatzak eta Zumarraga-Urretxuko abesbatzak egindako elkartrukearen barruan kokatzen da.

Lasarte-Oriako abesbatzak maiatzaren 23an Zumarragako Andre Maria Mesedetakoaren Lagundiko komentuan kontzertua eskaini zuen eta era paregabean hartu zituzten bertan.

Kontzertua

Honela, Zumarraga-Urretxuko abesbatza-aren txanda izan zen herenegun.

Javier Arratibelen zuzendaritzapean, gaur egungo edo antzinako doinu erlijioso, zein polifonikoak eskaini zituen Goiargi abesbatzak. Hala nola, Mendelssolnen



Jauchzet Den Herrn, Ubi Caritas O. Gjeilo musikariarena eta herrikoiagoak diren Mikel Laboaren *Txoriak Txori*, S. Esnaolaren *Amak ezkondu ninduen* edo J. Ezkurraen *Aritz adarrean*.

Kontzertua amaitzerakoan, txalo zaparradaren ostean, Alboka Abesbatzako ordezkariek oroigarria eta lore sorta eman zizkieten Javier Arratibel zuzendariari eta Lourdez Idiakez Goiargiko presidenteari. •

Ane Labaka bigarren, gazteen Euskal Herriko txapelketan

Larunbatean jokatu zen Euskal Herriko Eskolarteko XXI. Bertsolari Txapelketa, Altsasun, Nafarroan. Amaia Iturriotz eta Ane Labaka sailkatu ziren lehen bi postuetan gazteen mailan. Hain zuzen ere, 15urteko 18 urtera artekoen mailan. Ane Labaka lasarte-riatarra bigarren sailkatu zen, Amaia Iturriotzen atzetik.

Goizean eta arratsaldean, 150 lagun inguruk ikusi zituzten zazpi lurraldeetako bertsolari gaztetxoaren saioak. Gaztetxoaren mailan, kantuan bizkor aritu ziren. Arratsaldean, gazteen mailan, urduria-ko ibili ziren bertsolariak. Ezin asmatu ibili ziren saioaren lehen zatiko zenbait ariketatan. Hala ere, ale politikak entzun ziren tarteak. Gaiak ez zituzten batzuetan adinean oso gertu-

koak izan: alargunen ahotik, aitona-amonenetik eta guraso-enetik aritu ziren batzuetan.

Ane Labaka pozik azaldu da egindako saioarekin eta lortutako emaitzarekin. Txapelketan izan zirenen esanetan, lasarte-riatarrek saio ona egin zuen, eta ondo aritu zen. Hori bai, hasieran urduritasuna somatzen zitzaion. Lapurdiko bertsolari batekin tokatu zitzaion bertsotan aritzea. Gela batean zeuden bi gaixo ziren, eta ez zuten bisitarik jasotzen. Gai horri bertsokak jartzen aritu ziren. Ondoren, Zuberoako bertsolari batekin aritu zen, eta zailago egin zitzaion. Hala ere, bertsokak onak izan omen ziren.

Euskal Herriko Txapelketa, azken hilabeteetako bertsok saio garrantzitsua izan da.

Egunero

Erakusketa

MARIAN IBARGOIEEN herritararen margoak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Astelehena, 22

Jokoak

MAHAI JOKO TRADIZIONALAK. Biyak Bat Jubilatuen Elkartean, 16:00etan.



Astearte, 23

Jokoak

MAHAI JOKO TRADIZIONALAK. Biyak Bat Jubilatuen Elkartean, 16:00etan.

Kontzertua

JUBILATUEN ELKARTEKO KORUAREN emanaldia. Brigitarren komentua, 19:00etan.



San Joan bezperako ospakizunak

Urteroko ohiturak mantenduz, aurten ere ZORTZIKOA dantzatu da San Joan egunaren bezperan Udaletxe aurrean iluntzeko 21:30ean. Dantzatu eta gero Andatza plazara abiatuko dira dantzariak eta bertaratutako guztiak. Bertan, SOKA-DANTZA eskaini ondoren San Joan sua piztuko da 22:00ak aldera.

ASTEARTEAN 23AN
21:30EAN UDALETXE AURREAN
22:00ETAN ANDATZA PLAZAN

Asteazkena, 24

Jokoak

MAHAI JOKO TRADIZIONALAK. Biyak Bat Jubilatuen Elkartean, 16:00etan.

Osteguna, 25

Erakustaldia

AEROBIKEKO ERAKUSTALDIA Jubilatuen etxeko kideen eskutik. Kiroldegian, 10:00etan.



Festa

URETAKO FESTA kiroldegian. 5 eta 12 urte bitarteko pirata ausartentzat eta sirena ederrrentzat. Kiroldegian, 10:00etan.

Erakustaldia

GIMNASTIKAKO ERAKUSTALDIA Jubilatuen etxeko kideen eskutik. Kiroldegian, 11:00etan.

Erakustaldia

BATUKAKO ERAKUSTALDIA Emakumeen Zentro Zibikoko kideen eskutik. Kiroldegian, 12:00etan.

Jokoak

MUGIMENDUZKO JOLASAK, toka, igela eta potoa egingo dira. Isla Plazan, 16:00etan.

Luncha

LUNCHA aerobikean, gimnastikan eta jolasetan parte hartu duten guzientzako. Biyak Bat Jubilatuen Elkartean, 18:00etan.

Ostirala, 26

Txapelketa

Koadrilen arteko FUTBOL TXAPELKETAKO finalak jokatu dira. Kiroldegian, 10:00etan.

Jokoak

HAUR ETA GAZTEENTZAT (10 eta 18 urte bitartekoentzat) jolasak eta tailerrak. Isla Plazan, 11:30ean.

Lehiaketa

KANTA, POEMA ETA TXISTEEN LEHIAKETA. Aurreko egunetako jolasetako sariak ere banatuko dira. Biyak Bat Jubilatuen Elkartean, 17:00etan.

Kontzertua

ALBOKA ETA ALBOKA TXIKIREN urtero jaietan eskaintzen duten emanaldia. Brigitarren komentua, 20:00etan.



Oharrak

Herri Batzarra

Ekainaren 23an, bihar, arratsaldeko 19:30ean, Ezker Abertzaleak Herri Batzarra egingo du Xirimiri elkartean. Jorratuko diren gaiak hauteskundeetako balorazioa, aurrea begirako egitasmoak eta jaiak.

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etixeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete,

odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Danborrada entseguak

San Pedro jaiak hilaren bukaera direla eta, danborrada entseguak hasi dira. Astelehena eta asteazkenetan izango dira Sasoetako ikastetxeko gimnasioan, 18:30etan haurren txanda izango da eta 20:00etatik aurrera helduena. Garaiz iristea eta entseguetara joatea erregutzen da. Entsegu kopurua kontuan izango da. Honetaz gain, ekainaren 24ean helduek ez dute entsegurik izango eta Blas de Lezo-ko lokalera joan beharko dute 19:00etatik 20:00etara jantziaren bila.

Zabaleta Auzolaneko zozketa

Zabaleta Auzolanek Goiegi

jatetxean zozketatzen zuen 4 pertsonentzako bazkaria edo afaria 68065 zenbakia iragartzen du. Zenbakia duen pertsonak auzoko batzordeko kideekin harremanetan jarzea besterik ez du.

Sorgin-dantzako entsaioak

San Pedro jaietan dantzatzeko entsaioak antolatuta ditu Ttakunek. Entsaio hauek Landaberri BHI ikastetxean izango dira ekaineko astearte eta ostegunetan arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara.

Jaietako haurren koadrilen jaiak

Ekainaren 28an, urtero bezala, Ttakunek haurren koadrilen zozketa festa mundiala antolatuta du. Eguerdiko 13:30ean kalejira Zumaburu-

tik Atsotakarrera, bertan bazkaldu eta gero ur jolasak eta busti blai jolasa. Bazkarirako izena eman behar da ikastolan bertan edo Ttakunen.

Txakurra galdu

Astelehenean txakurra galdu zen Kotxeras-kaskarro eremuan. Setter ingeles arrak da, zuri-laranja kolorekoa eta txipa eta tatuaiak ditu. Norbait ikusi edo aurkitu badu, mesedez dei dezala zenbaki honetara, 605 752 332.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliz. Gure bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).

Aurre iritziak alde batera utzi eta erabilitako gauzak erosteko aukera

■ Liburuak, komikiak, jostailuak, margolanak, arropak eta antigoaleko gauzak izan ziren salgai, larunbateko bigarren eskuko azokan. Guztia merke-merke. Apurka-apurka jendea animatuz doa.

MARIA AGIRRE

Jose Antonio eta Mertxe lasarte-
teoriatarrek lehenengo aldiz
parte hartu zuten larunbatean
egindako bigarren eskuko
merkatuan. Etxean soberan
zituzten hainbat gauza salgai
jartzea erabaki zuten. "Etxean
tokia okupatzen dute behar
ez dituzun gauzek, eta merka-
tu honetan saltzea erabaki
dugu", kontatu zigun Mer-
txek. Liburuak, DVDak eta
VHS sistemako bideoak era-
man zituzten, baina, bereziki,
komikiak. Jose Antoniori asko
gustatzen zaizkio komikiak,
eta soberan zituenak saltzea
erabaki zuen. Beraz, bilduma-
gile edo komikizaleentzako
postu bikaina zen Jose Anto-
nio eta Mertxerena.

Denetarik zegoen Udalak
antolatutako bigarren eskuko
objektuen merkatuan. Helbu-
rue berrerabilpena bultzatzea
izanik, denetarik erosteko
aukera zegoen. Zapatak eros-
zitezkeen, 5 edo 4 euroren
truke. Eskuko poltsak ere bazi-
ren. DVDak 3 nahiz 5 euro-
tan, pisu bat ere bai, irriti
zaharrak, Beatles taldearen
koadroak, garai bateko egun-
kariak, surf egiteko tabla,
apaingarriak...

Saltzaile batzuentzat lehe-
nengo aldia zen, ez, aldiz,
beste zenbaitentzat. Donostia-
ko Ane esaterako, sarritan iza-
ten da horrelako merkatutan.
Bildumazaleentzako mauka
polita zuen, 1975eko egunka-
riak, *La Voz de España* alegia.
"Ni hilean bitan joaten naiz
Hondarribiako merkatura.
Eason hilean behin izaten
naiz. Lasarten esperientzia
berria da, bigarren aldia da
herri honetara natorrela. Nor-
malean nahiko ondo saltzen

dugu, baina azkenaldian sal-
tzen jende gehiago dabil eros-
ten baino". Garai bateko irriti
bitxia zuen salgai Anek 25
eurotan. Salduko ote zuen!

Baina elkartasunerako
tokia ere bazen merkatuan.
Kontxa lekaimeak Nikaragua-
rako dirua biltzeko asmoa
zuen, eta hainbat goxo egin
zituen etxean. "Ea pastel
hauek guztiak saltzen ditudan.
Dirua Nikaraguara bidaltzeko
da, hirugarren adinekoen zen-
tro baterako. Somoton dago
zentroa. Behar handia dute
hango zaharrek, eta guk diruz
laguntzen diegu. Pastelak ez
ezik, soinekoak eta beste arro-
pa batzuk ere ekarri ditut.
Guztia eman egin didate nik
salgai jartzeko".

Antzeko helburua zuten
Lasarte-Oria Bizirik platafor-
makoe ere. Ricardo eta Iñaki
topatu genituen postu hone-
tan, arropa, liburu, DVD eta
beste hainbat gauzaren artean.
Guztiak prezio sinbolikoak
saldu nahi zituzten.

Berrerabilpenaren kultura
ez dago errotura gure artean.
Hala kontatu zigun Urrietako
Estitxuk. Pare bat urte darama-
tza horrelako merkatutan
parte hartzen. "Hemen berre-
rabilpenaren kulturarik ez
dago. Frantzia, adibidez, oso
ohikoa da bigarren eskuko
gauzak erostea. Jendea ohituta
dago. Gurean ere aurre iri-
tziak alde batera utzi beharko
lituzke jendeak. Nik, behin-
tzat badut bigarren eskuko
gauzak erosteko ohitura, eta
oso ondo". Arropa eta osagarri
asko zeuden salgai Estitxuren
postuan. "Arropak eta osaga-
rriak nire bizioak dira, asko
gustatzen zait. Baina, batzue-
kin aspertu egiten zara, eta
salgai jartzea erabaki dut".



Kontxa lekaimeak etxean egindako pastelak ere salgai jarri zituen. Nikaraguarako dirua bildu nahi zuen.



Estitxuren ustez, jendeak aurre iritziak alde batera utzi beharko lituzke. Arropak eta osagarriak salgai zituen.

San Pedroak 2009

13:30ean kalejira mundiala
Zumaburuko Isla Plazatik
Atsobakarrera

14:00etan bazkaria eta
ondoren Busti Blai! jolasa



Haurren koadrilen
jai

Parte hartu nahi baduzu
eman izena 25a baino
lehen Ttakunen
943 371448

